

- Guiñi!!!!!!!

- Zuen laguna hilda dago, goazen azkar hemendik, ez da komeni laino horren azpian geratzea. (Elhuyar mintzo, prefosta)

- Hobe duzu zaldi horren zama diozun bezain baliotsua izatea.

Elhuyarrek paper batzuk ateratzen ditu zorren artean. - *Andereño, nik nire anaia galdu dut. Ez ahaztu hori.*

Ixiltasuna Elhurrayek bera puskatzen du.

- *Begira, lehen erakutsi didazuten papertxoari falta zaion zati da hau.*

Bi paperak batu eta airean holograma osatzen da, formula batena.

- *Hor duzuna, gure lagunen bizitza baino baliotsuagoa da. Malko bat dariola esan du azken hau. - Otso-harria malgutzeko formula da.*

Taldea Añarbeko urtegiara iristen da. Ederrek atsedean hartzeko agintzen du.

- *Eskertzen dut zuen laguntza, bai eta Faustoren paperak eskuratu izana, baina orain zer? Zientifikoak, hala dela deliberatu dute besteek, zer bestela?, herabe ematen du orain.*

Irizar da lehena erantzun bat ematen: *Ameriketara joatea zen nire ametsa; hori ez dut beteko, baina Pasaiaiko portuaren ondoan gaude, eta han geratu nahi dut. Mundu berriei so. Ez dut bidaia honetan segituko.*

Gizon ixila da Irizar. Erantzunak piztu du pixkat Elhuyarren animoa. *Bon, zeregin handia dut nik ordea; formula hau gauzatu behar dut; gu baino handiago den jokoan hartzen ari gara parte, zuek hala jakin ala ez. Bergarako Garitanoren laborategia galdu baduzue, Abadia jauna da gure itxaropena bakarra. Atarratzen.*

- *Bai jauna, hori da gure helmuga. Hara iritsiko gara, baina gure modura.* Ederrek, noski, erantzun zuzena du. Baina ez du erantzun bere lagunei begira, inor konturatu gabe bahitua eta bahitzaileak ingurututa daukan taldeari begira baizik.

Elhuyar eta Irizar azaldatzen dira; ijitoz inguratuta daude, maskarada batekoak diruditenak.

Irudia: Añarbeko urtegiko horma. Kepa Sarasola.
https://eu.wikipedia.org/wiki/Fitxategi:A%C3%B1arbeko_urtegiko_horma.jpg

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)